

FELIS BELTRAN DE HEREDIA  
ANDRA MARI 07 - 2 EZK  
ARETXABAETA

# Aretxagazeta

Aretxabaeta ● 2000ko uztailaren 20an ● 195. zka.



## Etxe txikiaz oporretan



*Irudimenarekin, eskulanak egiteko  
kutzak, kajonerak, bandejak,  
pertzeroak, komuneko altzariak...  
margotu ditzakezu. Eta nahiago izanez  
gero, geuk margotuko dizkizugu.*




## AZKARATE AROZTEGIA

ARETXABAETA 943 77 01 24  
BERGARA 943 76 47 19

*Ateak, leihoak,  
horma armairuak, tarimak  
eta parketak*

ARDATZA  
*Brikolaketa*

Masterreka, 4 behea. Tf.: 943 76 18 93 • BERGARA




# Exigency

Prakak,  
alkondarak,  
jertseak,  
kamisetak eta  
parkak.

50 urte  
Atxabalta  
jazten...

# ASENSIO

## Oporretarako zein asmo duzu? Hotela, kanpina ala nola bidaiatu izan duzu?



**Jon Kortabarria**

Almeria aldera joango naiz, kostaldera, itsasoa da goen lekura. Apartamendua daukagu bertan eta urtero joan izan gara.



**Igor Etxabe**

Eskoziara joango gara hamabost egunetarako. Oraindik ez dugu pentsatu non lo egingo dugun. Hara hegazkinez helduko gara, eta kotxea alokatu bertan.



**Eloisa Lozano**

Galiziara eta Extremadurara joango gara. Nire aita-gin-amagin arrebak bertan bizi dira eta familian pasatzen ditugu oporrak.



**Miren Zuazabeitia**

Oraingoz ez daukat abuzturako planik eta hemen ibiliko gara hara eta hona. Gero urrian joango gara oporretan. Beti hotelean hartzen dugu lekua.

### ESKUTITZA



#### EUSKAL NORTASUN AGIRIAK

##### GERTU

Apirilean herrian ospatu zen Aberri egunean egin ziren Euskal Nortasun agiriak jasotzeko gertu daude. Horretarako Aretxagazetara zuzendu zaitezke, agiria egin zenuten guztiok. Gure ordutegia goizez 9:00etatik ordu 1era eta arratsalde, 15:00etatik 18:00etara da.

Bestalde, egun horretan Azatzan bazkaldu zenutenok, taldeko argazkia jaso nahi izanez gero ere Aretxagazetan jaso ahal izango duzue.

*Aretxabaletako Aberri eguna taldea*



#### ESKER ONA ETA OHARRA

Lehenik eta behin, Euskal Presoak Euskal Herrira Aretxabaletako Plataformaren izenean, gure

eskerrik beroenak ematea, uztailaren 12an gure herritik pasa den Euskal Presoen eskubideen aldeko martxan parte hartu eta antolatzen lagundu duzuen herritar guztiei.

Plataformaren iritziz, ekimen hau martxan jarri eta egiteko, uztailaren 12ko ordu bete horretan batu giñanon arteko elkar komunikatutako lan garrantzitsu bat izan dela dudarik ez dugu. Ibilbidean zehar eta berau antolatzeko, presoek eskubideen aldeko elkartasun handia ikusi da, aipatzeotan: bileretara etorritako taldeak, 39 errelebo-talde, udaltzaingoak eginiko trafiko lana, pankartekin eginiko lana, dantzariak, txistulariak, soiñujoleak, hankapaluak, solidarioak gruan, sirena martxan, itzulia markatu eta argazkiak atera, Aretxagazetak

martxaren berri zabaltzea... Orokorrean mila esker denori.

Idatzi honen bidez, beste deialdi baten berri eman nahi dugu. Herriko jaiak, datorren hilean direla ikusirik, abuztuaren 16an, (Andramaixetako 2. eguna), Euskal presoek eskubideen alde eta berauen Euskal Herriratzea eskatuko duen manifestazioa antolatu dugu. Ordua eta hasiera lekua aurrerantzean jakinaraziko dugu. Orduan ere, denok batera batuko garelakoan agurtzen gara. Eskerrik asko.

*Euskal presoak Euskal Herrira Aretxabaletako plataforma*

## Aretxagazeta

195. zenbakia  
2000ko uztailaren 20an.

Durana 11, 151 postakutxatila  
Aretxabaleta  
Tfnua: 943 79 86 21  
Faxa: 943 77 18 54  
e-mail: aretxagazeta@euskalnet.net

Argitaratzailea: Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte.

Zuzendaria: Edorta Mendieta.  
Erredakzio-kontseilua:  
Begoña Arenaza, Arrate Arkauz, Aintzane Lasa, Pello Zubizarreta, Arantza Antxia, Mireia Uribetxebarria, Goretti Ayastuy, Ibon Agirre.  
Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:  
Mirari Altube eta Iratxe Bengoa.  
Kolaboratzaileak:  
Mikel Arroabe, M. J. Aretxaga, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Aitor Antxia, Felis Beltran de Heredia, Loramendi E. E., Udala.

Banatzaileak:  
Aitor Urrutia.

Inprimategia:  
Eguzkidgraf, Koop. Elk.

Tirada: 2.500 ale.  
Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da.  
Lege gordailua: SS378 / 94.  
ISSN: 1134-2609.

Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Erakunde hauen laguntza



Aretxabaletako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurlaritzako Kultura saila

## Presoen aldeko ekintza ugari egunotan

Euskal presoak Euskal Herrira lemapean hainbat ekintza egin dira egunotan bai Euskal Herrian, bai gure herrian. Uztailaren 9an Debagoieneko herrietako plataformek antolatuta mendi ibilaldia egin zen Arantzazutik Urbixara. Ez zen jende gehiegi batu eskualde mailako ibilaldia izan zela kontuan hartuta baina eguraldi polita izan zen eta baita giro alaiare.

Uztailaren 12an, barrez, Euskal Herria zeharkatzen ari den ibilaldia heldu zen Debagoienara. Aretxabaletara Eskoriatzatik ekarri zuten testigua arratsaldeko 17:00-etan. Han Martxi Perez Almeneko irakasleak hartu eta 100 metrotik 100 metrora egin beharreko ibilaldiari ekin zion. Herriko ia 40 taldeetako ordezkariak 4 km. inguruko ibilbidea egin zuten eskuz esku testigua elka-

ri pasatuz. "Atxabaltarron hitza euskal presoak Euskal Herrira" zioen pankartaren atzean, barrez, herritar ugari egin zuen ibilbidearen zati bat, eta askok ibilbidea osoa ere bai.

Solidarioen bisita ere izan genuen. Martxa Aretxabaletan sartu zenean Santa Kurtz kalean egiten ari diren etxeetako garabira igo eta hainbat pankarta zabaldu zituzten bertan etxafle-

roak jaurti bitartean. Trikiti doinuek girotuta, txalaparta hotsa eta sirena ere entzun ziren Durana kalean. Alkateak testigua eduki bitartean aureskua dantzatu zioten herriko dantzariak. Gaztetzeko mutilak, barrez, hankapalo eta guzti atera ziren kaleak girotzera. Presoen aldeko herri ekimen polita giro baketsu eta alaiarekin ospatu zena, zerbait lortuko balitz...



## Lasai

Mirian Manteca  
MASAJISTA

Masaje terapeutikoan  
Posturen azterketa eta  
egokitzean  
diplomatua

Lezama merkatal zentrua  
Santa Kurtz, 24 etxabea  
20550 Aretxabaleta

Tel.: 943 77 04 34


## IRIARTE

Umeendenda  
eta  
lentzeria



Durana, 8 Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 10 96





Aurten paella erraldoia izango da jaietako azkenengo egunean, ez bakarrik paella, "te de los puertos" ere bai

## Laster datoz 2000. urteko Andramaixak

Data hauetan oporrak ditugu gogoan gehienok, joan aurretik, ordea, herriko jaietan zer izango dugun jakitea komeni zaigu. 2000. urteko Andramaixetako egitarauak ez dakar berrikuntza haundirik, baina herritar guztion gusturako egindako egitaraua aurkeztu du Jai batzordeak.

**Antzerkiak kaleak animatzeko**  
Abuztuaren 15ean kale animazioa izango da Trapu Zaharra taldearen eskutik, "Paquetito" antzezlan eskainiko du hain zuzen. Bertan zezen hiltzaile baten istorio bitxia kontatzen da.

Urtero letxe, aurten ere hemen izango da jaietako azkenengo egunean Hanka-gorri taldea. "Petrikiloak eta alkatea" antzezlan aurkeztuko du Mitarte plazan. Istorioren arabera herriko alkatea ez da ondo sentitzen eta bere petrikiloengana joko du sendagai eske.

**Kontzertu ezberdinak**  
Kontzertuek ere izango dute euren lekutxo eta gustu guztiak asetu guran hainbat antolatuta dira. Abuztuaren 15 eguerdian Trintxerpeko Banda izango da. Gauean, barrez, "Arantxa ta Pantxo"ren

eskutik rantxerak, boleroak, tangoak eta korridoak.

Abuztuaren 16 arratsaldean Nafarroako jotak entzuteko aukera egongo da "Ribera canta" taldearen eskutik. Gauean, aldiz, kontzertu paregabea txosnetan, "Freak XXI" eta Aretxabaletako "Serial Number" taldeak. Taldea sortu zenetik urtetxo batzuk pasatu badira ere, atxabalarraren lehenengo kontzertua izango da.

Jaietako azkenengo egunean paella erraldoia egongo da bazkaltzeko Herriko plazan. Ondoren txiste kontalaria eta jokuak izango dira.

■ **SANTIXAUAK KORUE-TAN** Andramaixak baino lehen Koruetako Santixauak helduko dira. Egitarau polita prestatu dute, gainera, auzotar eta bertara hurreratuko diren guztientzat. Uztailearen 22an, zapatua, kanpai errepikak eta marrazki lehiaketa egongo dira arratsaldeko 18:30ean. 20:00etan txikiteoa eta ostean auzo afaria. Gaueko 23:00etan, barrez, dantzaldia Gardoki soinu-jolearen eskutik. Uztailearen 23an, domeka, meza izango da auzoko hildakoen alde goizeko 11:30ean. 12:00etan txikiteoa eta bazkaria bakoitzak ahal duen tokian. Arratsaldeko 18:00etan haurren jolasak eta XII. mus eta VII. briska txapelketak. Ostean, txokolatada haur eta nagusientzat. Uztailearen 25ean, Santixau eguna, meza nagusia izango da 12,30ean eta ondoren, jaietako bukaera emateko luntxa.



GARBITU S. KOOP

**Garbiketa  
orokorrak**

Errekararren 3- Behea  
Tel.: 943 79 01 28

ITURGINTZA

**J.J**  
Jose Jabier Irure

URA, GASA ETA  
KALEFAZIOA

Tel.: 943 79 07 34  
943 79 31 87

**OSKAR  
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4  
Tel.: 943 79 98 74  
Fax: 943 71 24 59  
ARETXABALETA

**M**

**MEMESA**

**Industri hornidurak**


Tel.: 943 71 24 11  
ARETXABALETA

■ **EAJ-K GOBERNU BATZORDETIK ALDE EGIN DEZAKE** Gipuzkoako hainbat udaletan Eusko Alderdi Jeltzaleak ETaren indarkeria gaitzesteko mozioa aurkeztu du aste honetan. Aretxabaletan martizenezan aurkeztu ez bazen ere ondorengo egunotan aurkeztuko dela suposatzen da. Aurkeztekotan EAJk berak bakarrik egingo luke seguru asko, EAk martizenezan oraindik ezer erabaki barik zuen. Datorren eguaztenezan, hilak 26, osoko bilkura egingo da eta aztertzeotan hantxe aztertuko litzateke. Astelehenezan Gobernu batzordearen bilera egin zen eta gai hori ez zen sartu gai ordenezan. Hala ere azken orduan plenoko gai bezala sar daiteke. Mozioa aurkeztuz gero eta EHk ez badu onartzen, EAJ irten egingo da udal gobernutik. Kasu horretan, EHk eta EAk osatuko lukete Aretxabaletako udal gobernu.

## Aretxagazetako postal lehiaketa

Urtero letxe, postal lehiaketa antolatu du Aretxagazetak bere irakurle eta herritar guztien artean. Parte hartzeko oportetara joandako lekutik, edozein toki dela, postaltxo bat besterik ez duzue bidali behar. Ez dugu eskatuko ez mezu

orijinalik ezta agur politik ere, nahikoa izango da postala bidaltzea. 151 posta kutxatila da helbidea, baina ahaztuz gero ez larritu, Aretxagazeta bakarrik jarrita ere heltzen dira eta. Saria zer? afari goxo-goxoa herriko jatetxe batean!



## LEINTZ GATZAGAKO GATZ MUSEOA MARTXAN DA

Aste honetan abian jarri da Leintz Gatzagako gatz museo. Herri honek bere historian izan duen jardueira ekonomiko garrantzitsua gogoraraziko da bertan. Bertara hurbiltzen denak gatz egitearen aintzinako prosezua eta gaur egungoa ikusi ahal izango ditu, bertan jarri diren, panel, bideo eta abarri esker. Hemendik bi hilabetearen buruan, gainera, gatz benetan egiten hastea da museo berriaren helburua. Museoa eguaztenezan eguakotxera bitartean zabalduko da astean zehar. Aste barruko egunetan enkargu barik 17:30ean izango dira bisitak. Zapatu, domeka eta jai egunetan, barrez, goizez 11:30ean eta 12:30ean eta arratsaldez 17:00etan eta 18:00etan bisita gidatuak egiteko aukera egongo da.

FOTO

**Urkiola**  
ARGAZKIAK

Herriko plaza, 5-behea  
Tel.: 943 79 39 20  
ARETXABALETA

**Bataioak  
Jaunartzeak  
Ezkontzak**

-----  
**Albunak  
Argazki kamarak  
Markoak...**

Bereziki: Harategia  
Urdaitegia  
Fruitategia

IMANOL  
JANARI DENDA

Gorbea kalea ☎ 943 79 05 83

**KAURRAK**



**Umeendako  
moda**

Lezama merkatal  
zentrua, 15  
Tel.: 943 77 14 86  
ARETXABALETA



- BILTEGI HOZKAILUA
- HARAGI PRODUKTOAK
- INDIOILARRA ZATITUTA
- UNTXIAK
- TXERRIKIAK
- IZOZTUAK
- BASERRIKO OILASKOAK

Basabe Poligonoa A-15  
☎ 943 79 34 28 • Faxa: 943 79 34 28

**ARETXABALETA  
ITURGINTZA**

Durana, 16-Tel.: 79 17 53  
ARETXABALETA



**Lurrindegia  
Opari-denda**

Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

# Eguraldi kaxkarra baina jaia nagusi Portasolen

Portasolgo jaiak eguraldia ez dute lagun izan asteburuan, baina, hala ere, jaiak giro onean ospatu dira. PAGLEk, Portasol auzoko gazte lagun elkarteak, lana gogotik egin behar izan du antolatutako ekintza guztiak behar bezala irteko.

Eguakotxean DJen erritmorra gorputza astintzen aritu ziren bertara gerturatutakoak. Zapatuan beste ekintza batzuen artean, zezenek, mus

txapelketak, umeendako jokoek, txistulariek eta Estrellas Azulez taldeak girotu zuten jaiak. Urtero moduan musak zaletu ugari batu zituen, 46 bikote guztira. Domekarako eguraldia hobetu zen, eta margo lehiaketan gazte askok hartu zuen parte, eta arratsaldeko xake txapelketan ere 10 lagun aritu ziren.

Kontuak kontu, bukatu ziren jaiok, eta datorren urterarte agurtu ditugu.



■ 46 bikote ibili ziren musean, hori bai afizioa!



■ Ibai Mugika saiatu zen baina Ander Arnaiz izan zen azkarrena.



■ Marrazkilari ugari jardun zuen marrazkigintzan.



■ Hain beldurgarriak ete ziren zezenak? ez zen jende gehiegi hurbildu eta.



■ Hurrengo jokaldia ondo pentsatu behar.

## ANDRA MARI JAI ZORIONTSUAK

Aretxabaletako Udala, kultura saila  
eta jai batzordearen eskutik





Momentuz 35 komertzio sartu dira elkartean, baina gura duen guztientzat dago zabalik

## Aretxarte merkatarien elkartea sortu da herrian

Herriko merkatariak batu eta Aretxarte izeneko elkartea sortu dute. Momentuz 35 komertzio sartu dira elkartean, baina ez da inolaz ere elkarte itxia izango.

Idea herriko dendari pare batek izan zuen, Eusko Jaurlaritzari laguntzak eskatzeko orduan, ordenagailua jartzeko, dendan obra egiteko edo ikastaro bat egiteko, elkartuta egonez gero puntu gehiago lortzen zirela konturatu baitziren. Horrela herriko erroldan begiratu eta merkatari guztiei eskutitzak bidali zitzaizkien ideiare berri

emateko. Momentuz tabernariari ez zaie ezer esan, baina hauentzat ere zabalik egongo dela komentatu da.

### Batzordea osatua dago

Jadanik osatu da Aretxarte elkarteko lehenengo batzordea. Lehendakaria Bikene Zubia da eta lehendakari ordea Mirian Manteca, idazkaria Amaia Zubia eta diru-zainak Blanca Saez eta M<sup>a</sup> Jesus Revuelta, bokala barrez, Miren Josu Eraña. Asteazken honetan bertan, gainera, estatutuak sinatzera joan dira, horrela ofi-

ziazki eta lege aurrean ere sortua gera dadin elkartea.

### Aretxarteren lehenengo ekintzak

Aretxarte elkarteak egingo duen lehenengo ekintza logotipo lehiaketa izango da, opor ostean seguru asko. San Migel jaietarako ere zerbait prestatu gura dute "zer edo zer egitea gustatuko litzaiguke baina agurtxo izango da behar bada opor ostean iraila gainean dago eta. Bestela, Gabonetarako izan beharko da" dio Amaia Zubia elkarteko idazkariak.

## HIRUATXEKO PROIEKTUEN BERRIAK

Hiruatzek azkenengo hila-beteotan hainbat proiektu izan ditu eskuartean. Kurtsu bukaera heldu denean, horien berri eman gura die laguntzaile eta herritar guztiei.

Nikaraguako Condega herrian hasitako proiektua Mitch urakanaren ondorioz atzeratua eta irailean hasi zen berriro. Proiektua 4 milioi pezetakoa izanik, 100 bat familiei laguntzea zen helburua: famili arteko ortuak, oilotegiak, emakumearen heziketa eta josketa ikastaroak... Mozambikentzako hondamendian laguntzeko ere batu zuten dirua Hiruatzek. Aretxabaletan 1.673.350 pezeta batu zen eta diru hori Intermonen bitartez bidali da Mozambikera. Debagoienako herri eta enpresen artean 6 milioi eta erditik gora batu zen.

Azkenik Indian Ignazio Galdosek zuzentzen duen Unai-II proiektua dago. Adibidez, esne behiak erosteko hasierako aurrekontua 8 milioitakoa zen eta 6 eta erdi bidalita dago honez gero. Hala ere, proiektu hau luzatzea erabaki da 2001eko apirila arte, 13 milioi lortu arte hain zuzen, Indiako adibasiak dituzten beharrak izugarriak dira eta.

ARBULO  
HARATEGIA

Santa Kurtz, 5  
Tel.: 943 79 02 24  
ARETXABALETA

Jose Mari  
bodegoia

Eguneko menua

Nafarroa, 6  
☎ 943 79 20 45  
Aretxabaleta

Iber

★ Loteria ★  
✿ Paperdenda ✿

Otalora, 2  
Tel.: 943 79 04 39

Hies  
berria

943 79 26 99



## Akordeoi Orkestra Europara joan da

Uztailaren 14an atera eta 25 arte European ibiliko dira Akordeoi Orkestrako kideak. Serbiako Kanzija herrian hiru kontzertu eman go dituzte, ondoren Budapest eta Viena bisitatu eta Alemaniarentz joango dira beste bi kontzertu emateko bertan.

### Bisita itzuli guran

Kanzija herriko orkestrak orain bi urte kontzertua eman zuen Aretxabaletan. Bisita itzultzekotan geratu ziren hemengoak, baina alderdi hartako gerra zela eta, iaz ez zuten joaterik izan. Hiru kontzertu haue-tatik bat Tista erreka ertzze-

an antolatzen duten arrantzza jaialdiko egitarau barruan emango dute. Alemanian, Baviera inguruko herrietan joko dute, kontzertu bat parke batean izango da eta bestean bertako musika eskolako orkestrak ere parte hartuko du.

### Ondo ikasitako errepertorioa

Akordeoiak entseiu ordu asko eskatzen ditu. Urtean zehar asteen behin izaten badituzte ere entsaioak taldean, bada hilabete eta erdi inguru egunero-egunero hiru ordu jotzen dutela. Horrez gain, bakoitzak etxean sartzen dituen orduak daude jakina.

Serbia eta Alemaniara eramanean duten errepertorioa, ordea, ondo ikasita daukate, martxo eta maiatza bitartean Gaztela eta Leonen eman zituzten kontzertuetarako ikasi baituzten. Errepertorio ezberdinak dituzte prestatuta, gainera, ezberdina baita eliza barruan jotzea edo kanpoan ematea kontzertua.

### Akordeoilari kopuruak behera

Garai batean bi talde egon baziren ere, momentu honetan 14 eta 26 urte bitarteko 21 kidek osatzen duen talde bakarra gidatzen du Juan Jose Orobengoak. "Ko-



puru aldetik oso justu gabiltza. Behetik datozen hiru bat gazte daude laster taldean sartuko direnak, baina oso gazte gutxi dator atzetik. Normala da gainera, kirola, ingelesa eta mila gauza baitituzte eta horrez gain, baita bideo joku eta ordenagailuak ere. Dena dela kopurua baino maila da garrantzitsuagoa eta oraingoz maila ona daukagu" dio Juan-jok. Akordeoi Orkestra izan arren, akordeoiez gain perkusioa jotzen duten hiru mutil ere badaude taldean.

Gurasoak ere beti izan dituzte inguruan laguntzeko prest, txosnak antolatu dirua ateratzeko... Bidaia askotara ere laguntzen diete, baina oraingoz ez, luze samarra dela eta neska-mutikoak bakarrik joan dira.



INDUSTRIA HORNIKUNTZAK



**URKULU, S.L.**

Mitarte, 23  
Tel.: 943 79 96 66  
Fax: 943 77 10 33

*Etxabe  
harategia*

Durana 4  
☎ 943 79 16 61



**FELIX  
PAGALDAY**

Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea  
☎ 943 77 00 33/79 42 56

Frutan eta  
txarkuterian  
espezialitatea


*Angelines*  
**AUTOZERBITZUA**

Mitarte, 16 • 943 79 61 42



andra mari  
jai zoriontsuak

Mitarte, z/g ☎ 943 77 00 81  
Loramendi, 6 ☎ 943 77 17 19



*Aretxabaleta  
okindegia*

*Kalitateak mugarik ez*



**ARGI-PLASTIK**

Leihoen fabrikazioa, P.V.C, aluminioa eta poliuretanoa  
Zigorrola, 1 8. Pabilioia  
Tel.: 943 77 11 30  
ARRASATE

*Aitor San Migel eta Saioa Etxebarria orain hamahiru hila-bete joan ziren Mexikora lanera. Datorren urteko maiatza arte bertan egon beharko dira eta momentuz Gabonak arte behintzat ez dira etorriko. Hori bai, Euskal Herria bezalakorik ez ei dago.*



## Aitor San Migel eta Saioa Etxebarria Mexikoko Coprecin lanean

■ Mexikon zein aldetan zaudete?

■ Mexiko erdi inguruan gaude, mendebalderuntz. Guadalajara hirian bizi gara, Jalisco estatuan. Pazifikoko kostaldea 4 orduetara daukagu eta hiriburua, Mexiko DF, 5 ordu eta erdira.

■ Zertara, zein lan egitera joan zineten?

■ Biok Mexikoko Copreci lan-tegian gabilta lanean. Coprecik bazkide mexikar batzuekin duen lantegia da. %75 Coprecirena da eta gai-nontzekoa bazkide mexikarrena. Saioa, informatika-ko arduraduna da lantegi honetan eta ni, Aitor, termostato gaseko muntaia linea bat martxan jartzen ari naiz.

■ Lan egiteko era Euskal Herrikoaren antzekoa al da?

■ Ez. Langileak sarritan ez

dira lanera agertzen eta hasi berriak direnean, lana ez bazaie gustatzen utzi egiten dute egun gutxitara. Inguru honetan lan ugari dago eta jendeari ez zaio batere in-porta lana uztea. Lan orduak ere ez dira berdinak, hemen lan asteak 48 ordu ditu.

■ Zaila egin zaizue Mexiko-ko bizimodura moldatzea?

■ Ez. Guadalajara horko edozein hiriburu haundi bezalako da. Kuadrila ere osatu dugu, zortzi euskaldun eta bi santanderinoren artean eta horko bizimodua daramagu. Eguraldiak ordea, ez du horko arekin zerikusirik, baina samur moldatu gara. Ekainetik irailera arte euria sarri egiten du, gainontzeko hila-beteetan, barrez, ez dugu laino bakar bat ere ikusten.

■ Hemengo eta horko bizi-

moduak oso ezberdinak al dira?

■ Guretako ez, lehen esan bezala gure kuadrila daukagulako. Bestela bai. Oso normala da familia osoa batera ikustea kalean, bazkaltzen... Neska-mutilak oso gazte ezkontzen dira, baita umeak eduki ere. Dena dela poliki-poliki pentsakera hau aldatzen hasi da eta gaurko bikoteek ez dituzte ume asko edukitzen. Baina hemen okerrena pobrezia da eta uste baino pobre gehiago dago. Edozein semaforotan topa daitezke umeak txikleak edo beste zerbait saltzen.

■ Zer moduz janariarekin?

■ Ohitu egin behar da pikantea jatera eta prestatzeko modura, baina oso aukera haundia dago eta gauza berri asko dasta daiteke. Eta

gauza berriak prestatzen ikasi ere bai.

■ Euskaldunak eta mexikar-  
rak ezberdinak al gara?

■ Bai, jokaera ezberdinak ditugu. Hemengo mutilak oso "kaballeroak" dira, neskak, filmeetan bezala, kotxe barruan gelditzen dira mutilak atea ireki zain. Hori bai, gero emazte edo nobixari adarrak jartzea ere ez zaie bat ere kostatzen.

■ Lanaz gain, zer egiten  
duzue denbora librean?

■ Etxeko lanek ez digute denbora libre gehiegi uzten, baina ahal denean kanpora ateratzen gara edo kirol apur bat egiten dugu. Aste bukaerak toki berriak ezagutzeko aprobetxatzen ditugu, distantziak, ordea, oso luzeak direnez toki askotara ezin gara heldu.

## Turismoa geurean

Sarri iruditzen zaigu gaur egun dena beti-koa dela, eta turismoarekin ere neurri haundi batean berdin gertatzen zaigu. Oporrak izatea eta oporretara joatea ez dira izan beti bateragarriak. Turismoa gaur egungo fenomeno da, 50. hamarkadatik aurrera produktu turistikoak eskala handietan komertzializatu direnean, salneurriak merkeagotuz hedatu egin da. Ezin da ukatu alor honen garrantzia gero eta handiagoa dela, horixe ikusten da turismo eskaintzan eta eskarian bertan. Gaur egun, turismoa gizartearen behar gisa, kontsumo ondasun bat bezala planteatzen da.

Azken urteetan kontsumitzaileen eskaeratan aldaketa nabarmenak antzeman daitezke. Batetik, eskaintzen diren produktuak ez dira hain estandarrek, mugatuak,... eta bestetik, "eguzkia eta hondartza" ez dira eskaintza guztien ardatz bakarra, beste kontzeptu batzuk sortu dira; turismo kulturala, turismo ekologikoa edo berdea, turismo aktiboa, landa turismoa, etab. Eskaintza turistikoa espezializatuagoa, bereziagoa eta segmentazio handiagokoa da. Hau da, barne turismoak gero eta garrantzi gehiago du.

Gizartearen aldaketak, aldaketa sozio-demografikoak eta kostaldeko guneetan sortzen den masifikazioa izan daiteke aldaketa hauen arrazoia.

Baina, guk hemen, zer? Nik argi daukat iharduera turistikoen garapenean turista eta hartzaile diren kultura eta gizartearen arteko harreman modu berriak landu behar direla, gure ingurua, natura, ondare historiko-artistikoa errespetatuz, garapen neurtuaren ildoan landuz. Turismoaren garapena inguruaren babesarekin harremanetan gure ondarea berreskuratzeke eta indarberritzeke tresna bihurtu behar da, aldi berean ekonomia dibersifikatzen lagunduz.

Halere, ez dugu gure herria baliabide turistikoak dituen herri moduan hartzen. Agian, gure ingurua hobeto ezagutuz gero konturatuko ginatke, ditugun baliabideak beste hainbat herri turistikok dituzten bestekoak direla, eta gainera, gauzak sortzeko ahalmen handiak ditugunez, baliabide berriak sortzeko gai ere bagarela.

Ana HERIZ



**PAGALDAI**

**Opari denda  
Lurrindegia**

Durana, 33 ☎ 943 79 10 14

**BENGOA  
URDAITEGIA**

*Bertako okelak eta  
mortzilak*

Durana, 9  
Tel.: 943 79 19 79

*Garbitze*

Lehor eta busti garbiketa

Mota guztietako  
jantzien garbiketa



*Jende askok aukeratzen du oporretan karabanan joatea*

# Oporrak etxea aldean hartuta

## Martin Garai

**"Oso gustora pasatu ditugu hamabost urte hauek karabanan"**

Martin Garai eta bere familiarik ia 15 urtean karabana izan dute Santa Cilia de Jaca herrian, Jacatik oso gertu. Aretxabaletatik ordu pare batera egonda aste bukaeratan ere sarri-sarri joan ohi ziren gero bertatik mendi irteerak egiteko. Kanpin zaleak izanik, hasieran dendarekin joaten ziren, baina umeak jaiotzeaz bat karabana erosi zuten. Kotxearekin mugitzeko aukera izan arren, karabana guztiak bezalaxe, ez zuten sekula Jacatik mugitu, lekua atsegin zuteneguz zergatik ibili mugitzen? "Oso gustora pasatu ditugu hamabost urte hauek. Leku politean kokatuta, naturarekin erabat kontaktuan geunden erosotasunari uko egin gabe. Karabanaren kanpoaldean sukualdea eta terrazatxoak jarrita genituen, beraz, ezin gustorago..." dio Martinek.


Orain hiru urte, ordea, semea Realean jokatzen hasi zen. Oraindik gaztetxoak zenez, abuztuan norbaiti lagun egitea tokatzen zitzaion Donostian eta horrelaxe karabana saldu eta pisua alokatzen dute orduetik. "Gerora begira, seme-alabak nagusitzen direnean, emaztea eta biok kanpinera bueltatuko gara, apartamentu hotz batean oporrak pasatzea baino gurago dugu eta karabanan egotea". Kanpinean oso lagun onak egiten dira, beraz, "betiko irauten duten lagunak".

## Arantxa Antxia

**"Oso eroso da karabana, dena eskura dagoen etxe txiki bat"**

Badira bost urte baino gehiago Arantxa Antxiak eta senarrak karabana dutela. Eskiatzera joateko erosi zuten eta eskiatze garaian Frantziako Luz Sant Sauver herrian izaten dute. Arantxak dioenez "Negua heltzerakoan apartamentu bila ibili beharrean karabana bertan izanda ez daukagu buru kantzaziorik. Oso eroso da, eta gainera, dena eskura dagoen etxe txiki bat".

Maiatza inguruan, ordea, Luz Sant Sauvereko kanpineko araudiaren arabera karabana mugitu beharra daukate eta orduan Zurizara, Izaba inguruko herritxo batera ekarten dute. "Hau ere oso leku polita da eta mendira joateko aprobetxatzen dugu, Hiru erregeen mahaia eta beste hainbat mendi oso gertu daude eta" dio Arantxak.





Argazkiak: Errota Kanpina. Mendigorria (Nafarroa)

## Maribel Lazpiur

**"Karabanak lagunak egiteko aukera ematen du"**

Maribel Lazpiur eta Alonso Asensiok Benicasinen daukate karabana. Gogoratu ere ez da egiten Maribel noiztik, hori bai hogeitertirik gora izango dira seguru asko. Lehenengo urteetan mugitu egiten zuten hara eta hona "Alonsok ez dauka inolako arazorik kotxearekin karabana mugitzeko. Batzuk arriskutsua dela diote, baina guk ez dugu inoiz arazorik izan. Hala eta guztiz aspaldian geldi daukagu Benicasinen" dio Maribelek.

Hotelera ere joan izan dira oporrak pasatzera, baina karabana ez daukate saltzeko, gura dutenean joateko aukera ematen baitie. "Apartamentura, esate baterako, ez nintzateke inola ere joango. Karabanak lagunak egiteko aukera ematen du eta adiskide ugari egin ditugu urte guzti hauetan".

## Karlos Martin

**"Erosotasun guztiak ditugu mobil-homean eta era berean kalean gaude"**

Iazko irailean Karlos Martin eta familiak "mobil-home" deritzan etxetxo edo karabana erosi zuten Nafarroako Mendigorria herriko Errota kanpinean. Kanpineko giroa betidanik izan dute gogoko, baina hiru seme-alaba gazte izanda zerbait erosoagoa gura zuten eta Mendigorrrian mobil-homea jarteko lur sailak saltzen zirela ikustean, erostea erabaki zuten. Karlosen esanetan "Etxeko erosotasun guztiak ditugu eta era berean kalean gaude, geure lorategitxo eta guzti, naturarekin kontaktuan eta askatasun osoarekin".

10 m. luzera eta 4 m. zabalera hiru gela, sukaldea, komuna eta egongela daukate. Kanpoan, barrez, terrazatxoa eurria egiten duenean aterpean eta bero egiten duenean kerizpean bazkaldu, jolastu edo egoanean egoteko.

## Kanpinean baina ganorazko aterpeaz



Oporretan etxetik irteteko modu asko daude. Lan guztiak eginda izateko hotela aukeratzen dute batzuk, erosotasunez egoteko apartamentua beste batzuk eta naturarekin kontaktuan egoteko edo merkeagoa delako kanpinera joaten dira asko. Kanpinera joateko ere modu ezberdinak daude: dendarekin, karabanan edo mobilhomean izan daiteke.

Dendarekin joaten dena jende gaztea izan ohi da, lur gogorrean lo egiteko oraindik gertu dagoena. Karabanak eta mobilhomeak, barrez, kanpineko giroa galdu barik erosotasuna eskaintzen dute eta familiak dira gehienbat oporretan joateko modu hau aukeratzen dutenak. Mobilhomeak, gainera, etxe txikiak dira, metro karratu gutxitan etxeko erosotasun guztiak baitituzte baina, era berean kanpineko askatasun espiritua galdu barik.



Mendia

Karakorumen aldaketarik ez. Karakorumetik heldu zaizkigun azken berrien arabera, eguraldiak ez du aldatzeko itxurarik eta herriko bi espedizioak beheko kanpamenduan jarraitzen dute. Felixen berbetan azken hogeit egunetan ez du eguraldi onik egin, hala ere, moralez ondo daude. Dagoeneko 7.000 metrorarteko ekipamendu lana eginga dute, eta orain eguraldiak hobetu zain, patxadaz itxaron beharko dute.



Futbola

UDA elkartearen batzar orokorra izango da uztailaren 22an. Udak hilaren 22an egingo den ohiko batzar orokorrera deitu ditu bazkide guztiak. Batzarra datorren zapatuan izango da eguerdiko 12etan udaltxeko pleno aretoan. Gai zerrenda ondorengoa da: 99/00 ekitaldiko kirol eta diru kontuak, 00/01 denboraldiko zuzendaritza batzordearen aurkezpena, eta bukatzeko, galdera eskariak.



Pilota

Atxabaltarrak hirugarren herri arteko torneoan. Hirugarren eta laugarren postua erabakitzeko Soraluzearen aurka jokatu behar izan zuten herriko pilotariak. 2-1eko emaitzaz gailendu ziren. Unai Uriarte eta Unai Errastik irabazi egin zuten nagusietan, eta baita Haritz Igartua eta Sergio Uriartek ere kadeteetan. Jubeniletan, barrez, Andoni Altube eta Haritz Kortabariak ezin izan zuten partidua irabazi.



Futbola

Jose Javier Barkero Frantziako Tolosara. Urtebete Realean egin ondoren, datorren denboraldian Frantziako Tolosan arituko da Jose Javier Barkero. Momentuz urtebeterako utzi dio Realak talde frantziarrari. Talde horrek aurten igo du lehen mailara, eta beraz, Barkero Frantziako talde onenekin izango dugu datorren denboraldian. Aurten ez du zorte haundirik izan Realean, eta beraz, aurrerantzean zorte on.

*Aurtengoa futbitoak ez du Arlutz izena eraman, izan ere, Arlutz tabernak erreleboa pasa dio beste taldetxo bati. Horien artean German Arriola antolatzaileetako bat izan dugu, eta berak kontatu dizkigu txapelketaren nondik-norako guztiak.*

**■ Lehen aldiz aritu zara horrelako txapelketa bat antolatzen, zer moduz?**

■ Lehen urtea izateko ondo moldatu gara. Arlutzekoek nekatuta zeudela jakinarazi zuten, eta txapelketa antolatzeko erreleboa beste taldetxo batek hartu dugu. Egia esan, Arlutz tabernak laguntza haundia eskaini digu, eta aurtengoa 10. aldia izan denez, ez da hain zaila izan.

**■ Eta nola joan da txapelketa 10. edizio honetan?**

Giro ona nagusitu dela esango nuke. Jokalarien artean lagun arteko giroa sortu da gehienbat, eta beraz, bai ikustera inguratu direnentzat eta bai jokalarientzat une atsegina pasatzeko aukera izan da.

**■ Zu zeu antolatzailea eta jokalaria izan zaitugu.**

■ Bai, Kilimon taldean aritu naiz. Astean partidu bi izan ditugu, baina ez dut gehiegi jokatu. Hala ere, uztailko arratsaldetan ezer egin barik egotea baino, gurago dut jolastea.

**■ Bitxikeriarik?**

■ Aurten oso talde gaztea aritu da txapelketan, hamabost urteko mutiko batzuk, hain zuzen. Lehen aldia da hain gazteek txapelketan parte hartu dutena. Bestetik, Aramaioko talde bat ere izan dugu aurten.

**■ Zenbat talde izan dira guztira?**

■ Hogeit talde, iaz moduan. Herrikoak bederatzi, Arrasatekoak zortzi, Eskoriaitzako talde bat eta Aramaioko beste bat.

**■ Zenbateko aurrekontua du horrelako txapelketa batek?**

■ Oso aurrekontu txikia du. Taldeek jartzen duten diruaz konpontzen gara. Bakoitzak 10.000 pta ordaindu behar du eta diru horrekin, baloiak, sariak eta gainerako gastuak ordaintzen dira.

**■ Dirulaguntzarik jasotzen duzue?**

■ Ez. Aurrez esandako moduan taldeek ematen dutenaz konpondu behar izaten dugu. Dena dela, aurrekontu txikia izan arren, futbitoak bere indarra mantendu du herrian, eta inguruko herrietatik ere taldeek gurera etortzen jarraitu dute.

**■ Kantxa margotu ostean, desberdintasunik igartzen da?**

■ Ez gehiegi. Bustita dagoenean labankorragoa dela entzun dut, bestela nahiko ondo.

**■ Lesioak gertatzen dire-**

**nean, antolatzaileek erantzunkizunik hartzen dute?**

■ Antolatzaileok ez gara kargu egiten horrelako kasuetan. Urtero izaten da lesioren bat. Aurten ere orkatila okertu du jokalaria batek.

**■ Hurrengo urtean ere antolatzeko gogorik bai?**

■ Bai, oraindik urrun dago baina niregatik bai.

## German Arriola

### Futbito txapelketako antolatzailea eta jokalaria





## ■ SAN INAZIO PILOTA TXAPELKETA AURRERA

Uztaileko zapatutan Iturri-gorri frontoian San Inazio pilota torneoa jokatzeko ari da. Arrasate, Aramaio, Bergara eta herriko bikoteak daude txapelketa horretan, eta dagoeneko, hainbat partidua jokatu dituzte. Hilaren 29an final aurrekoak jokatu dira eta San Inazio egunez, finala izango da Iturri-gorri frontoian 10:30etik aurrera. Aretxabaletako bi bikoteek, Aitor Alzola-Josu Lasagabaster eta Asier Mugika eta Unai Uriartek, joko polita erakutsi dute orain artean.

Bestetik, Oñatin jokatzeko ari den beste pilota txapelketa batean, Haritz Igartua eta Sergio Uriartek final aurrekoetara iristea lortu dute. Partidua datorren hilaren 23an jokatu da Oñatin bertan. Zortetik onena bikotearentzat eta animo.



UDako talde nagusiak aurkezpena egin zuen astelehenean

## Preferentearen aurkezpena

Datorren denboraldiari begira UDako preferenteak taldearen aurkezpena egin zuen astelehenean. Enrique Nieto entrenatzailearen aginduetara 21 jokalaririk ari dira hurrengo denboraldian. Horien artean sei berriak dira, alde batetik, Rodrigex Errealetik datorren atezain

arrasatearra eta Bergarako taldetik datorren Zangitu jokalaria daude, bestetik, erregionaletik igo dutenak, Gonzalez, Kortazar, Torres eta Galan. Taldeko bajak, barrez, Jonan eta Unamuno dira. Enrique Nieto entrenatzailearen laguntzaile lanetan, ostera, Mikel Luengo ariko da.

## ■ MURRUKIXOK LOKALEZ ALDATUKO DU

Uztaila bukaeran lekuz aldatuko da Murrukixoko elkar-teea. Orain dauden edifizioa goitik behera eraberritu behar da, eta ondorioz, datozen hilabetetan Murrukixoko lokal berria izango du, oraingotik oso getru. Aurreantzean udaletxe zaharrea kokatuko da mendi elkar-teea, hirugarren solairuan, Loramendi, Saretxo eta Aretxabaletako komunikabideak Loramendi elkar-teeak dauden egoitza berean. Mendi elkar-teea kideek jakinarazi digutenez, obrak amaitu ostean, lehengo lekura itzuliko dira seguruenik.



# Loramendi kirolak

Abuztuan goizez zabalik

Zure oporretarako material guztia

Map showing regions: CHINA, BHUTAN, INDIA, MEGHALA, BANGLA, ARUNACHAL PRADESH, ASSAM, WEST BENGAL, JHARKHAND, BIHAR, MADHYA PRADESH, GUJARAT, RAJASTHAN, MADHYA PRADESH, KARNATAKA, ANDHRA PRADESH, TAMIL NADU, KERALA, GOA, GUJARAT, RAJASTHAN, MADHYA PRADESH, KARNATAKA, ANDHRA PRADESH, TAMIL NADU, KERALA, GOA.

Prices:

- 2.765 pta
- 2.750 pta
- 11.450 pta Goretex
- 9.995 pta
- 4.995 pta
- 8.995 pta
- Arrasate

## Ander Oliden, piraguan Korsika ezagutzen

*Ander Oliden Korsikan egon da ekainean piragua hartu eta irla zoragarri hau ezagutzen. Irlaren kostalde gehiena piraguz zeharkatu du, Haitz Karakuel bere lankidearekin batera.*


Hiru aukeretatik, Balear irlak, Grezia edo Korsika, azken hau aukeratu zuten Ander eta Haitzek piragua hartu eta itsas bazterrak ezagutzeko. Alde batetik, hain urruti gelditzen ez zelako eta hilabete baterako aukera asko eskaintzen zitu- tuelako, eta bestetik, "Euskal Herrian dugun antzeko ego- era dutelako korsoek ere".

### Hogeitabost egun uretan

Irlari ez diote buelta osoa eman, ekialdea utzi dute bisitatzeko, hau oso turistikoa baita. Bastiatik iparralde- rantz hasi zuten bidaia piraguan, Cap Corse muturrari itzulia egin eta beherantz ondoren. Irlaren mendebal- dea egin ostean, handik he- goaldean dagoen Bonifacio herri zoragarria heldu zi-

ren. Azkenik, Porto-Vecchion bukatu zuten. Hogeitabat egun inguru behar izan dituzte ibilbidea egiteko. Horrez gain, Cerdeñan ere izan dira, eta beste egun batean irlako mendi gara- ienean (Monte Cintu 2.706 m). Azkenean, normala den moduan, uraz eta haizeaz kokoteraino bukatu dute.

"Eguna goiz hasten zen guretzat, aurreko gauean hustutako piragua, berriz goitik behera bete eta itsaso- ra. Janordua, berriz, bat- zuetan uretan bertan egiten genuen, beste batzuetan lehorrean. Hemendik era- mandako janaria jan dugu, fruitu lehorrak, gazta, txori- zoa... guztia hutsean ont- ziratua". Horretarako bidaia bi zatitan banatu behar izan zuten. "Kotxea bidaiaren er- dian utzi genuen, Ajaccion. Horrela lehen etapa egin on- doren, kotxea utzitako leku- ra iritsi, eta han berriz pira- gua janariz bete genuen". Hirurak aldera uretako ibilal- dia bukatzen zen, eta arra-



Ander Olidenek piraguaz ia itzulia eman dio Korsika uharteari

tsaldean, bainu bat hartu, herria ikusi, lo egiteko lekua edo kanpina topatu eta segi- tuan lotara.

### Ezagutzeko modu berezia

Anderrentzat lehenengo es- perientzia izan da piraguan egin duen hau, ez ordea Hai- tzentzat. Horrelako bidaietan gutxienez bi lagun joa- tea beharrezkoa da, izan ere, itsasoan edozer gauza pa- satuz gero, laguna aldame-

nean izateko. Dena dela, eurak ez dute arrisku une larririk izan, nahiz eta mo- mentu batean itsasotik irten beharra izan zuten, itsasoa zakartu egin zelako.

Piraguan, bizikletan edo oinez, Anderrentzat leku bat eta bertako jendea ezagutze- ko modu berezia da. Jen- dearengana poliki-poliki ger- turatzen zara, eta naturako parte izango bazina bezala sentitzen zara. Jendearen- gan kuriositatea sortzea ere samurragoa da, eta herrita- rrekin harremanak errazten ditu. Horrez gain, piraguan irla bat ezagutzeak bere abaintailak ditu, izan ere, jendea hel ez daitekeen baz- terrak ikusi dituzte, itsas bazterreko kobak esaterako.

Beraz, inguru zoragarria ei da Korsika piragua zaleen- tzat. Edozein txunditzeko moduko kostaldea izateaz gain, erreka ederrak ere baditu, mendi garaietako elurak urtzean, piraguz jaisteko egokiak. Mendia eta itsasoa maite dutenentzat leku aproposa, duda barik.



Korsikak inguru zoragarriak erakusten ditu piragua zaleentzat



**ARRASATE  
HOGAR**

KOLTXOIAK,  
ETXEKO OIHALAK  
ALTZARI OSATZAILEAK  
ETXEKO TRESNAK

*Zatoz*



Araba Etorbidea, 3/(San Andres, BM ondoan)/20500 ARRASATE/Tel.: 943 79 08 11

inpresoak • jai egitarauak • kartelak • liburuak • katalogoak

• fakturak • tarjetak • pe  
rioak • sobreak • kalenda  
filmazioak • publizidadea  
sarrerak • postulazioak •  
lak • liburuak • katalogoa  
• aldizkariak • errekorat  
presupuestoak • boletina  
telak • liburuak • katalog  
nak • aldizkariak • erreko  
• presupuestoak • boletin  
errifak • loteria • posterra  
soak • jai egitarauak • ka  
turak • tarjetak • pegatin  
• sobreak • kalendarioak  
inpresoak • jai egitarauak  
• fakturak • tarjetak • pe  
rioak • sobreak • kalenda  
filmazioak • publizidadea  
sarrerak • postulazioak  
kartelak • liburuak • ka  
pegatinak • aldizkariak • errekoratorioak • sobreak •

**Abuztuaren  
11tik 28ra  
ITXITA**

**Ondo pasa  
oporrak eta  
Andramaixak**


Araba Ibilbidea

20550 ARETXABALETA

Industrialdea F-0-4

Tfnoa.: 943 79 18 44

Faxa: 943 79 29 41




**EGUZZKIGRAF**

inprimategia

*Idoia Elexpuru eta bere semea Julen Arriola aurtengo Andramari kartel lehiaketako irabazleak izan ditugu. Idoiak hiru koloretako kartulinak erabili ditu kartela egiteko, eta Julenek azkenengo margo ikutuak eman dizkio lanari.*

## Idoia Elexpuru

### "Hiru kartulinekin egin dut Andramaixetako kartela"



#### ■ Lehendabizi zorionak. Nola hartu duzu berria?

■ Pozik, sari aldetik oso ondo dago eta Andramaixak norberak egin duen kartelak iragarriko dituela jakiteak, asko poztzen nau.

#### ■ Zenbat aldiz jaso duzu saria?

■ Ez nago ziur, baina hiruzpalau bat bider uste dut.

#### ■ Zenbat aurkeztu zarete aurten?

■ Hiru. Pena bat da hain jende gutxi aurkeztu izana.

Lehen jende gehiago aurkezten zen.

#### ■ Urtero aurkezten zara?

■ Ez, aspaldian aurkeztu barik nengoen.

#### ■ Zer erakutsiko du kartelak?

■ Hiru kartulinakin eginda dago, urdina, oria eta naranja. Kartulinekin gaba eta eguna isladatzen dira, gero kartulinak ebaki ditut, eta eliza, aterpea, zezenaren figura, dantzariak eta sua ageri da. Bukaeran Juleni utzi nion margoekin azken ikutuak ematen.

#### ■ Semea ere margolaria dator?

■ Ez dakit.

#### ■ Zer izan da zailena?

■ Ideia pentsatzea. Dena dela, hasieran beste modu bateko kartela izango zela imajinatzen nuen.

#### ■ Nolako kartelak gustatzen zaizkizu?

■ Sinpleak, asko kargatu bakoak. Gauza gutxi eduki arren, asko esaten dutenak; San Ferminetakoak adibidez, asko gustatzen zaizkit.

#### ■ Zein da zure kolore gustukoena?

■ Urdina.

#### ■ Margotzen jarraitzen duzu?

■ Bigarren semea jaio denetik, pintzelik hartu ez dudan arren, margotzen jarraitzen dut.

#### ■ Zein da margotu duzun azken koadroa?

■ Bilboko paisaje bat.

#### ■ Normalean zer margotzen duzu?

■ Hemen inguruko paisajeak.

#### ■ Oporretarako zein asmo?

■ Nojara joango gara.

#### ■ Andramaixetan hemen egongo zara?

■ Bai.

#### ■ Zer da jaietatik gehien gustatzen zaizuna?

■ Lehen gaueko giroa, orain, egunez oso ondo pasatzen dut, hirugarren egunean, adibidez.

#### ■ Herriko zein jai gustatzen zaizu gehien?

■ Aratuste domeka eta San Juan bezpera.



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

## Aholkularitza

Basabe poligonoa, F-O-10 (2. solairua) ARETXABALETA  
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68



*Zubia*  
Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 943 79 16 00 ARETXABALETA  
Biteri 1 • ☎ 943 79 66 53 ARRASATE



## Oporren atarian

Esan nizuen bai, bazetorrela festa garaia baina baita serio hartu ere, e? Esan nuen Portasolgo jaietarako prestatuko nintzela, baina beste batzuk ere ez dira lo egon. 46 bikote aurkeztu ziren auzoko 29. mus txapelketara. Horietatik bi gazte izan ziren txapel-dun: **Eneko eta Iban** auzotarrak. Saritzat jaso zuten atun haundiarekin badute datoren urterarteko marmitakoa. Bigarrenak, barrez, arrasatearrak, hirugarrenak Apotzakoko eta auzoko lehenentzat zen sari berezia **Asensio eta Jausorok** eraman zuten. Zorionak, beraz, guztiei eta segi aurrerantzean ere hor-dagoka.

Sandwich jaleetan, bestalde, **Ander Arnaiz** izan zen azkarrena, **Ibai Mugika** eta **Aitor Mendizabalen** aurretik. Mekatxis... jakin izan banu ere joango nintzen, horrela afaldu beharrik ez. Datorren urtean bokadiloekin egin dezatela eta ikusiko dute zenbat apuntatzen garen.

Pikasoak ere pilatxoak bildu ziren eta gartzetxoetan **Ander Giletak** egin zuen politena. 5etik 10 urtera bitartekoetan **Elena Fernandezek** eta nagusienetan, barrez, **Aitor Orobengoak**. Ea bada Pikasok Gernika famatu egin zuen legez, hauek Aretxabaleta egiten duten.

Xakean ere lehia handia izan ei zen. Azkenean, **Iban**

**Andresek** irabazi zuen, finala **Kepa Balenziagaren** aurka jokatu ondoren. Zazpi aldiz irabazi ei du txapelketa hau, gainera. Edozein ausartzen da honen aurrean jartzen. Ni ez behintzat! Baina agian **Jon Campo** bai, bera izan baitzen jubeniletan garaile.

Pasatu ziren Portasolgo jaiak eta laster datoz Andramaixak eta bertan itzelezko estreinua izango dugu. "Serial number"-en aurkezpen ofiziala izango da. Ez dakit zein estilotako musika egiten duten, baina txoritxo batek partaideak esan dizkigu: **Josu Txintxurreta** (gitarra), **Igor Etxandia** (gitarra), **Magoo** (bajua), **Ibai Bengoa** (bateria), **Kepa eta Iñigo** abeslariak. Azken biak izan ezik, gainontzekoak herrikoak dira. Musikak ere baduela zer esanik gure herrian, arraioa! Hara **Andoni Arana** eta **Oier Sarasua** ere pasa den uztaillaren 11n Bergarako Pol-Pol tabernan izan ei ziren. Ixilean baina aurrera begira beti!

Oporretan ondo pasatzeko opatzea besterik ez zait falta. Eta hori baino garrantzitsua, denok bueltan ikusi gura zaituztet, e? eta zoazten lekura zoaztela topatuko dituzue postaltxoak guri bidaltzeko. Gu zain izango gara jasotzeko, zuek afari bat irabazi gura baduzue behintzat.

*M. J. Arzak*



## Biblioporrak 2000

Aurten oporretarako irakurketa gida ez dugu atera, baina behintzat hemen emango dizuet liburu zerrenda bat oporretan irakurtzeko gomendatzen dizuedana.

### 0 URTETIK AUERRERA

- Nola dastatatu ilargia?/Michael Grejnlec. Kalandraka
- Buruko hura nork egin zion jakin nahi zuen satortxo /W.Holzwarth, W. Erlbruch. Kalandraka
- ¡Papa!/P. Corentin. Corimbo

### 6 URTETIK AUERRERA

- Zak zikoina/Joxemari Iturralde; Elena Odriozola. Elkarlanean
- Sagu kontuak/A. Lobel. Kalandraka
- Hiru sorginak eta morroia/Xabier Kintana; Antton Olariaga. Izar

### 8 URTETIK AUERRERA

- Grimm anaien ipuinak/Genaro Gomez Zubiaren edizioa. Pamiela
- Gorritxo eta Beltxiko/Joxantonio Ormazabal. Elkarlanean
- Lobito y la mansión embrujada/Ian Whybrow. SM

### 10 URTETIK AUERRERA

- Musubero mon amour/A. Lertxundi; A. Olariaga. Elkarlanean
- A zer danbatekoa!/Enric Bayé. Desclée De Brouwer
- Chicas al rescate/Bruce Lansky

### 12 URTETIK AUERRERA ETA GAZTEAK

- Animalien inauteria/Felipe Juaristi. Erein
- Manolito Laubegi/Elvira Lindo. Alfaguara-Zubia
- Harry Potter y el prisionero de Azkaban/J.K. Rowling. Emecé
- Helena eta arrastiria/Juan Kruz Igerabide. Elkarlanean

### HELDUAK

- Eta emakumeari sugeak esan zion/Lourdes Oñederra. Erein
- Connemara gure bihotzetan/Julen Gabiria. Elkarlanean
- Buenos días Euskadi/Joaquín Navarro Esteban. Foca
- La "voluntaria" conquista/Tomas Urzainqui. Arabera
- Maya/Jostein Gaarder. Siruela

Joseba Lopez de Armentia

## Denetik

Motorra erosiko nuke.  
Tel.: 943 77 09 52 (Paul).

Bi salmahai eta apalategi  
metalikoak salgai.  
Tel.: 666957983.

Kanpineko frigorifiko  
berria salgai. 30.000 pta.  
Tel.: 943 79 73 92.

Opel Astra GSI 115 cv sal-  
gai. 1993. urtekoa.  
Txuria. Tel.: 943 77 09 23.  
(Roberto).

Piragua salgai. Whip, it.  
Arraunekin, "cubrebañe-  
ra" eta bi globorekin.  
130.000 pta.  
Tel.: 943 79 78 36.

Opel Kadet GSI 2000 16 v  
salgai. Egoera onean.  
Tel.: 943 79 75 11/79 98  
08 (Mikel).

Ford Sierra 2000 kotxea  
salgai. Egoera onean.  
Tel.: 943 79 68 63.

Buldog ingeles txuri bat  
saltzen da. Bi urte ditu  
eta oso zintzoa da.  
Pedigri onekoa.  
Tel.: 943 79 21 86. (Jon).

Boxer eta pastor aleman  
arrazako txakurkumeak  
salgai. Pedigriarekin.  
Tel.: 696 057 346.

Gaixotasun arazoengatik

## Iragarkiak

Sail honetan jartzen diren iragarkiak DOAN dira.  
Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik.  
Aretxagazetak ez du argitaratzen diren iragarkien  
ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Zure iragarkia honako txoko  
honetan jarri nahi baduzu, deitu  
943 79 86 21 telefonora  
edo 943 77 18 54 erantzungailura.**

negozioaz ezin garelako  
arduratu, martxan dago-  
en denda alokatzen da  
Aretxabaletan.  
Tel.: 626 379 326.

Bigarren eskuko ordena-  
gailu portatila erosiko  
nuke. Tel.: 943 79 77 85.

Txahalak salgai kongela-  
doran sartzeko.  
Labeldunak eta natural  
hasitakoak. Bildotsak ere  
bai. Tel.: 689 541 861.

Roller karabana salgai.  
Aurreko estalkiarekin.  
Tel.: 943 79 46 84.

Peugeot 205 salgai.  
Tel.: 943 77 16 03.

Peugeot 306 XR 1.6 sal-  
gai. 1993koa da eta  
78.000 Km. ditu.  
Tel.: 607 15 30 70.

Ford fiesta familiarra sal-  
gai. 16 v. SS-BB.  
Tel.: 943 79 91 27.

Opel kadet GSI 2.0, 130  
zaldikoa salgai.  
Tel.: 943 79 16 43.

Irungo Kunsthal diseinu  
eskolan ikasten duten  
atxabaltarrekin harrema-  
netan jarri nahi duen  
Arrasateko neska bat  
naiz. Tel.: 943 79 28 11.  
Gaueko 21:00etatik aurre-  
ra. (Saioa). Ez banago  
mezua utzi.

## Etxebizitza

Garajea salgai  
Murubiden.  
Tel.: 943 79 88 15.

Logela bat alokatzen da,  
pisu konpartitu batean  
Arrasaten.  
Tel.: 943 79 23 96.

57 m<sup>2</sup>ko garajea salgai  
edo alokagai Errekaba-  
rren kalean.  
Tel.: 943 79 74 73.

Etxe bat erosi nahi da  
Aretxabaletan.  
Tel. 649 16 86 69.

Garajea salgai/alokagai  
Murubiden.  
Tel.: 639418106.  
(Ilunkaran deitu).

Herriko plazan lokal bat  
saldu edo alokatzen da.  
Tel.: 943 79 77 30. Egoera  
onean.

Laredon apartamendua  
alokatzen dut. Hondartza  
ondoan.  
Tel.: 943 79 52 80 edo  
656 717 745.

Laredon apartamendua  
alokatzen dut. Irailean  
15 egun.  
Tel.: 943 79 31 47.

Pisu berri bat salgai  
Bergaran. Hiru logela, bi  
komun, egongela, sukala-  
dea, terraza eta hall-a. 80  
m<sup>2</sup>. Tel.: 630 505 616.



ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 51

Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:  
*Lyonel  
Arquero*

Dekorazioa:  
*Soraya  
Arquero*

BERALAN



- ◆ Komunerako altzari eta manparak
- ◆ Ispiludun armairu aurrealdeak
- ◆ Beirate artistikoak
- ◆ Salarako mahaiak

KRISTALDEGIA ☎ 943 79 81 78 ARETXABALETA

Herriko plaza, 8 behea

## Lana

Abuztuan herriko gastro-  
nomi elkarte bat garbi-  
tzeko pertsona bat behar  
da.

Tel.: 943 79 62 63.

Xaramela tabernan lan  
egiteko pertsona bat  
behar da.

Tel.: 943 77 11 92.

Portalak garbitzeko neska  
bat gertu dago.

Tel.: 676393642.

Aretxabaletan zabalduko  
den kafetegian lan egite-  
ko zerbitzaria eta sukala-  
daria behar dira. Hobe  
esperientziadunak.

Tel.: 600264164.

Neska jatetxea garbitzeko  
eta sukaldean laguntzeko  
gertu dago.

Tel.: 600 600 531.

Pertsona bat behar dugu  
ume bi zaintzeko.

(20:00etatik aurrera  
deitu). Tel.: 943 77 00 32.

## Lan deialdi publikoak

Gizarte laguntzailea.  
Arrasateko Udala. Fun-  
tzionario interinoa. Epea:  
uztailak 27.

Ingeniari teknikoak.  
Sustapen ministeritza.  
Ingeniari titulua edo  
peritoea. Zazpi plaza ope-  
nazio bidez. Epea: uztai-  
lak 26.


Albaitaria. Nekazaritza  
Ministeritza. Albaitari  
lizentziatura. Hamaika  
lanpostu.

Epea: uztailak 24.

Administrari laguntzai-  
lea. Mendabiako Udala  
(Nafarroa). Epea: abuz-  
tuak 4.

Administrazio orokorreko  
teknikaria. Eibarko  
Udala. Oinarriak:  
2000/07/12.

Lankidetzako laguntzai-  
lea. Irungo Udala.  
Oinarriak: 2000/07/11.



# Langai

Euskal Lan Zerbitzua

**GASOLINDEGIKO HIRU LANGILE.** Bergara.

Erref.: 35232/3

**FUNDIZIOKO PEOIA.** Eibar.

Erref.: 35164/3

**FUNDIZIOKO PEOI BI.** Aretxabaleta.

Erref.: 35543/3

**IGERILEKUKO SOKORRISTA.** Durango.

Erref.: 35160/2

**ILEAPAINZAILEA.** Durango.

Erref.: 35360/2

**FOTOKOPIAK EGITEKO LANGILEA.** Gasteiz.

Erref.: 35193/1

**SUKALDARI LAGUNTZAILEA.** Gasteiz.

Erref.: 35434/7

**BANATZAILEA.** Gasteiz.

Erref.: 35548/2

Langaiko lanpostu hauetako bat interesatuz gero, ondorengo telefonoetara dei daiteke:

Bastida akademia: Aintzane Gallastegi 943 79 35 33

Deba Garaiko Mankomunitatea: Alicia Martinez 943 79 30 90

Arrasateko Udala: Marga Garmendia 943 79 09 00

# LEIBAR

arrandegia

Mitarte Kalea, 1

Tel.: 943 77 13 79

ARETXABAETA



# Mobiliario ARENZA

. ALTZARIAK

. DISEINUA

. APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07

ARETXABAETA



# MAPFRE

Aseguroak

Errekabarren, 3

Tel.: 943 77 11 76

# GEMES

- Depilazio elektrikoa
- Makilaia permanentea
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 943 79 99 18

Aretxabaleta

BITXITEGIA

**MIREN & ZURIÑE**  
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA

Otalora kalea  
Eliza aurrealdean  
Tel.: 943 77 13 57



# Farma bizi

Parafarmazia

Kontsulta naturista

Loramendi, 8 Tel./Faxa: 943 77 18 18

## UZTAILA

## 21 EGUAKOTXA

■ ANTZERKIA GAZTET-  
XEAN

Josu Escuderoren eskutik Trainspotting antzezlanak ikusteko aukera egongo da alde batetik, eta Macrea Clarkek Stand up comedy saioa antzetzuko du, bestetik. Gaueko 22:30etik aurrera gaztetzearan. Sarrera 300 pta.

## 22 ZAPATUA

■ UDA ELKARTEAREN  
BATZAR OROKORRA

UDAK ohiko batzar orokorra egingo du eguerdiko 12etan udaletzeko pleno aretoan.

## 22, 23, 25

■ SANTIAGOAK  
KORUETAN

Egun hauetan zehar Santiagoak ospatuko dituzte koruetarrek.

## 30 DOMEKA

■ SAN INAZIO EGUNA  
MURU ALDEN

Muru alde elkartearen San Inazio eguna. Ilunkaran etxaflero jaurtiketaren ondoren, soinu jolearekin txikiteoa eta gero afaria izango da. Afal ostein akordeoi dantzaldia egongo da Saioarekin.

## 31 ASTELEHENA

■ SAN INAZIO EGUNA  
MURU ALDEN

12etan meza hildako bazkideen alde, salda eta txorizoa eta gero bolatxapelketa.

## 24-6

■ ABIADURA HAUNDI-  
KO TRENA

Abiadura haundiko trenaren aurka akanpada Arrasateko Santa Barbara parkean uztaillaren 24tik abuztuaren 6ra bitartean.

## ABUZTUA

## 14, 15, 16, 17

## ■ ANDRAMAIXAK

Jai egitarau zabala antolatuko du kultura sailak jai batzordearen laguntzaz.



Gogoratu Murruxiko mendi elkarteko piraguismo sailak piragua irteera antolatu duela Gallego (Hueska) ibaira. Irteera irailaren 16 eta 17ko asteburuan egingo da. Informazioa Murruxikon martizenetan 19:30etik 20:30era.

## LEHIAKETAK

■ GAZTETXEKO LOGOTI-  
PO LEHIAKETA


Aretxabaleako gaztetzearan logotipo lehiaketa antolatu du. Logotipoak "Aretxabaleako gaztetzeara" hitzak jasoko behar ditu. DIN-a 4 formatoan aurkeztu behar dira lanak eta uztaillaren 27a baino lehen entregatu behar dira gaztetzearan. Irabazlea irailean emango da jakitera eta saria 25.000 pta da.

## IKASTAROAK

■ EMAKUMEENTZAKO  
"MAKINA ERREMINTA ETA  
DOIKUNTZA" IKASTAROA

Arrasateko Udalaren enplegu zerbitzuak makina erreminta eta doikuntza oinarriko teknikan prestatzeko ikastaroa antolatu du emakumeentzat. Debagoieneko mankomunitate eskolan emango da eta guztira 400 ordu izango ditu. Astelehenetik ostirale-ra 14:00etatik 17:30etara luzatuko da, irailaren 19tik martxoaren 23ra. Izen ematea uztaillaren 21a arte egin daiteke Arrasateko udalaren enplegu zerbitzuan. Tel.: 943 79 09 00.

## BALITXAKUK (Hikaz berbetan)



Mikel Arroiabe

Aretxagazeta



## Zorion agurrak



**Joana Amozarrain**  
Uztailak 13  
Zorionak zure urtebetetzean. Zure gurasoak, julen eta zure ahizpa, Jessica.



**Gorka Perez de Labeaga Unanue**  
Uztailak 14. (9 urte) Zorionak eta ondo pasa. Etxekoan partez, aita, ama, ibon.



**Josu Lanzos**  
Uztailak 25  
Zorionak eta urte askotarako. Lagunak.



**Aiora Markaide**  
Uztailak 25  
Zorionak. Ez dakigu Bergara aldiin zer galdu jatzun baina... Lagunak.



**Santi Quintas**  
Uztailak 25  
Zorionak  
Gureako zure lankideen eskutik.



**Marisol Lozano**  
Uztailak 29  
Magallanes familiak egun zorionsua opa dizu zure urtebetetze egunean.



**Unai eta Marijo**  
Uztailak 29  
Zuen ezkotza egunean eta bidaian ondo pasa. Zorionak bikote. Etxekoak



**Zorionak laukote**  
Fran eta Andoni Miguel, uztailak 27  
Ane eta Naia Martin, abuztuak 20  
Familiakoan partetik zorion bero-beroak laurontzat.



**Isa Magallanes**  
Uztailak 31  
Zorionak zure familiaren partetik eta egun zorionsua opa dizugu.



**Sonia Morales**  
Uztailak 31  
Aupa Sonia eta aupa San Inaxio gure patro haundia. Zorionak. Lagunak.



**Pedro Jose Zuazabeitia**  
Abuztuak 2  
Zorionak aitita Joxe. Markelen eta Gaizkan partetik.



**Manolo Zubillaga**  
Abuztuak 10  
Zorionak familiakoan partetik.



**Leire Velasco**  
Abuztuak 15  
Zorionak aitaita eta amamaren partez zure lehenengo urtebetetzean.



**Jasone Garziaetxabe**  
Abuztuak 15  
Zorionak koadrilakoan partetik.



**Pello Zubizarreta**  
Abuztuak 17  
Zorionak eta urte askotarako. Aretxagazetako batzordekideak.



**Agurtzane Elkoro**  
Abuztuak 22  
Zorionak koadrilakoan partetik.



**Edorta Mendieta**  
Abuztuak 27  
Zorionak Aretxagazetako batzordekide eta langileen partetik.

## Txistuak • Txaloak

Ez noa aurrerapenaren aurka. Hala ere, gaztetatik garai bateko Marianisten eskola ondoko pasealekua zuhaitz ederrez beteta ikusten ohitu naiz, eta benetan min ematen du bertako arbola ederrak botata ikusteak.

Industriak beste behin naturaren aurka egin du. Horrelako leku atsegin bat parke bihur zitekeen, baina itxura denez, zelaia ez dira industrialderako egokienak, historia duten arbolarte ederrak, horiek bai. Eskoriatzako Marianista eta Aretxabaletako Bainuetxea zeuden lekuak dira horren adierazgarri. Beraz, horrelako kasuetan **txistua** aurrerapenari.



## Jaiotakoak

## Jokin Uribetxebarria Madinabeitia

Uztailaren 14an.

## Ihintz Unanue Urizar

Uztailaren 16an.

## Aretxabaleta

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 86 21
• Telebista	943 79 86 21
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkarte	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 71 26 28
• Kultur-Etxea	943 71 10 27
• Kurtzarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Mankomunitatea	943 79 30 90
• Murruxiko M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Ortzadar	943 79 01 84
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otorra	943 71 24 06
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikast.	943 79 17 00
• Saretxo	943 71 26 56
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

## Udaltzaingoa

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

## Larrialdiak

• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea	943 03 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdiak	943 46 11 11
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

## Garraioak

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 02 02
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15



## Muru alden jaia

# 1

953. urtean sortua, Aretxabaletako elkarte zaharrena da Muru alde. Bere lehen egoitza Mitarte 12an izan zuen, Asensio jantzidendaren atzekaldean; erretratu hau bertan ateratakoa da. Gerora beste bi egoitza ere ezagutu ditu, Ezkutu tabernaren gainean eta gaur egungoa.

Orain ia mende erdi, 1955. urtean argazki hau atera zuten Muru aldeko bazkide gehienek Arriaran anaia pilotariek batera. San Inaziotan zen eta egun horretan Arriaran II pilotariari omenaldia egin zioten Muru alden, estatuko txapel-

dun izan baitzen. Finala 1955. urteko maiatzaren 15ean jokatu zen Bergaran, Arriaran II eta Soroa aurrez aurre zirela. Emaitza 22-13koa izan zen Arriaran arrasatearraren alde.

Argazkian elkarteko ia bazkide guztiak ageri zaizkigu, gaur egun horietatik lau baino ez daude bizirik.

Argazkian goian Felis Arenaza, Jose Mari Elkorro, Jose Arregi, Jose Zubia, Jesus Errasti, Miguel Zubizarreta, Akilino Garai, Ziriako San Miguel, X. Feliciano Larrañaga, Donato Larrañaga, Jose Etxebarriarteun, Luis Leanizbarrutia, Es-

teban Unanue, Lorentxo Peña.

Bigarren iladan: Enrique Elorza, Donato Urrutia, Teodoro Zuazua, Jose Irizar, Bartolome Goñi, Don Jesus Axpe (medikua), Paco Arriaran III, Jesus Alberdi, Hilario Errasti.

Tomas Ibarzabal, Jose Angel Galarraga, Jose Arriaran II, Timoteo Ezpeleta, Nikolas Peña, Juan Luis Izagirre, Ramon Arrue.

Lorentxo Peña, Esteban Leanizbarrutia, Romualdo Uribe-txebarria.

*Argazkia: Muru alde elkartearen Informazioa: Migel Igartua eta Higinio Etxabe.*



# LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

# TABERNA eta JATETXEEN GIDA


## Zaraia taberna

**MANTEKA  
ANAIK**

*Goizeko 5,30etatik  
zure zerbitzura*

Araba Ibilbidea, 20 • 943 79 88 95

## Haizea taberna



Mitarte, z/g • ARETXABALETAK  
Tel.: 943 79 85 57

## Express akeitegia



Santa Kurtz, 16  
☎ 943 79 23 43 zure gustoko giroa

## Gurea taberna

**Jatetxea eta  
taberna  
GUREA**

*Eguneko menuak*

Durana kalea • 943 79 20 64

## Dorleta taberna

**Dorleta**

*Bezeroen zerbitzura*

Loramendi 8 • ARETXABALETAK  
☎ 943 79 94 15

## Arlutz taberna

**ARLUTZ**  
MITARTE, 16 • ARETXABALETAK • TFNOA: 79 32 34

*Gustoko musika*

Mitarte, 16  
Tel.: 943 79 32 34

## Ezkutu taberna



Mitarte, 9 • ☎ 943 79 92 01

## Lauxitta taberna



**Pintxoak, bokatak,  
hanburgesak...**

Lauxitta, 4  
943 79 29 36

## Mendiola erretegia

**ESKORIASA**

Tfno 714345



*Bazkariak  
eta afariak*

*Astelehenetan  
itxita*

Mendiola auzoa • Eskoriatza

## Bazter alde jatetxea



**Sasoiko  
jakiak  
giro  
onenean**

Galartza auzoa  
☎ 943 79 24 58  
ARETXABALETAK

## Amets taberna



**Taberna eta kafetegia**

Iparragirre, 4 • 943 79 01 29  
Aretxabaleta

## Basabe jatetxea

**Menu eta afariak**



Basabe poligonoa • 943 79 91 84

## Josu harategia/taberna

**Josu  
harategia  
taberna**

- Urdaitegia-gozotegia
- Kroasantegia
- Gertatutako janariak

Mitarte, 1  
Tel.: 943 77 03 08



## Taberna Berri

**Taberna Berri  
jatetxea**



Durana, 26 • ARETXABALETAK  
☎ 943 79 20 67

## Urbaltz taberna



**URBALTZ  
TABERNA**

Mitarte, 21 behea  
Tfnoa.: 79 79 79  
ARETXABALETAK



Gauza ez da guretzat errentagarrien den ihes-hodia jartzea edo eskuragarri dugun bakarra jartzea. Nissaneko kontzesionario guztietan, originalak diren ordezeko piezekin-lan egiten dugu soilik. Gainera, prezioen menu bat daukagu, itxia, salmenta osteko eragiteka guztientzat (eskulana eta BEZ barne). Hau da kontzesionario ofizialen abantailako bat. Besteak, begibistakoak dira: espezializatutako langileak, zerbitzu profesionala eta 12 hilabetetarako konponketak bermatuta. Eta gainera, orain, ohizkoak ez diren prezioengatik, ihes-hodi originalak jartzen ditugu zure esku. Behar baduzu, etorri zaitetz zure ihes-hodia jasotzera. Gurekin, iduri bateko abantailak dituzu.

# Abantailak bete-betean.

Ihes-hodia 11.700 pta.tik aurrera • Aurreko mote gailuak 22.750 pta.tik aurrera  
Enbrage kita 20.200 pta.tik aurrera • Balazta pastilen jokoa 7.000 pta.tik aurrera

## ALDIBI AUTOAK, S.A.

ZIGARROLA KALEA, 1 - TEL. 943 71 20 02 - 20500 MONDRAGON-ARRASATE

\* Nissan Micra 1.0 rentzat salneurri gomendatua (BEZ eta eskulana ez daude barne)



GIDATU ETA GOZATU